



HIZTUNAK PLAZAN !

Viviane Ithursarry, Mintzalasai-ko idazkaria

Testuingurua:

Eremu berdina: BAIONA ANGELU BIARRITZ

- Azken inkesta sozio linguistikoaren emaitzak ikusirik, IPAR Eh-ko eremun nahiko kritikoa da euskara mailan : 9000 euskaldun eta 6800 elebidun hartzaile, biztanlegoa 130 000koa delarik.

Euskararen erabilera %2koa dela ikusirik, nahiko ezkor izan gintezke.

Zenbakiak beste modu batez ere irakur ditzakegu. 9000 hiztun eta 68000 hiztun hartzaile badira, 15 800 aurkera euskaraz mintzatzeko badira.

Orduan nola da posible lortzea egunak eta egunak BABen pasatzea euskarazko hitz bakar bat ere entzun gabe? Non ote dira euskaldunak?

Euskaltegietan ere galdera bera? Nola egin euskaraz praktikatzeko euskaltegitik kanpo?

Testuinguru hortan sortu dira orain ondoko bi gertakariak: euskaraz mintzatzeko ahala garatzeko egunerokotasunean, BAB bezalako eremu urbano batean, non ipar euskal herriko biztanlegoaren %40a bizi den.

Egia erran, Biarritzar gisa, BAB biztanle gisa, BAB maila euskararen presentzia eta ikusgarritasuna garatzen lortzen bada, beste eremuetan garatzea errexago izan daiteke! Eta hortarako dinamika horien parioa egiten da!

Mintzalasai eta BAM dinamika xumeak dira, helburua ez da ekimen horiek eredutzat hartzea baina horietatik alde on eta hobetzekoak gogoan izatea, aktibatze dinamiketan ibili edo ibiltzen dena baliatzeko eta hobetu behar diren punduan edo izan diren puntu ezkorak zuzentzeko edo ez berritzeko..

Mintzalasai eta BAMen arteko puntu amankomunak:

- Bi inizatibak herritarrak eta kolektiboak.

- Helburu berak: Euskararen erabilera karrikan, komertsioetan garatu nahia eta hitzunik aktibatzeke xedea.

Mintzalasai

- **ZER DA ?**

Dinamika herritarra da eta gertakari bat ere bai. Urtero aktibitate programa herrikoï eta bateratzailea proposatzen du. Formakuntzak, ikusgarriak, tailerrak, kontzertuak, mintzaldiak, mahain inguruak edo gogoetak, festak

Denentzako hitzorduak dira : haurrentzat, helduentzat, eta aurten uraso/ haurrentzat tailerrak ere proposatuko dira euskararen erabilera familian sustatzeko.

5 urtez, Biarritzeko momentu azkar bat bazen, iaztik, Baiona-Angelu-Biarritz dimentsioa hartu du.

- **NOLA SORTUA DA?**

2011. urtean, Biarritzeko Euskararen Herri Batzordearen baitan sortutako dinamika positiboa da.

Herri batzorde hortan Biarritzeko euskara eta euskal kulturaren alde obratzen diren egiturak elkartzen dira.

- **ZEIN DIRA HELBURUAK ?**

Euskararen erabilera bultzatu, trukatzeko eta partekatzeke hitzorduak eskainiz. Eragile desberdinak batu, federatu euskararen inguruan : euskaldunak izan ala ez. Jendeen artean koesio bat sortu.

Euskarari ikusgarritasun eta erakargarritasun gehiago eman, euskaldunei euskaraz bizitzeko momentuak proposatuz eta euskaldunak ez direnak sentibilisatzeko ere bai, elkar bizitza baikor baten aldeko xedearekin.

- **ZENBAKI BATZU...**

- **30 egun**
- **75 hitz ordu (%80,25 betetze tasa)**
- **35 elkarte antolatzaile / 50 eragile parte hartzaile**
- **100 laguntzaile**
- **7 000 parte hartzaile**

BAM

- **ZER DA?**

BAM! da desafio kolektibo bat. Herritarrek sortua hiztunak aktibatzeke eta euskarari karrikan leku gehiago emateko.

- **NOLA SORTUA DA?**

BABko euskaradun batzu elkartu ziren uztaila hasieran eta erabaki zuten aste batez ahal bezain bat karrikan euskaraz mintzatzearen parioa altxatzea. 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 3a arte iragan zen. Euskararen nazioarteko egunarekin bukatu zen.

- **ZEIN DIRA HELBURUAK ?**

Euskarari leku gehiago ematea karrikan. Euskaldunei, ekimen kolektiboa baita konfiantza eta ausardia eman ingurumen erdaldun batean euskaraz mintzatzen ausartzeko.

Lehen hitza beti euskaraz eman eta ikusi parekoak euskaraz edo frantsesez erantzuten duen!! Ausartu lehen hitza euskaraz ematen!

Iria ezpainetan eta euskara ahoan!!!

- **KONKRETUKI, NOLA EMAN ZEN MARTXAN ?**

Irailetik goiti parte hartu nahi zutenek izena eman behar zuten eta 2 perfilen artean hautatu: ahoz bizi edo belarri prest!

14 desafioen artean 12hautatu behar zituzten. Desafio horiek ziren beren ohituretan baino euskara maila batean edo bestean gehiago sartzea eta erabiltzea.

Aho bizi ziren arazorik ez zutenak euskaraz mintzatzeko eta belarri prestak gehiago euskara ulertzen zutenak bainan ez zirenak aski azkar sentitzen solasaldi osdo bat euskaraz eramateko.

Udazkenean prestakuntza tailerrak proposatuak izan ziren parte hartzaileei lehen hitza euskaraz ematen ausarsia eta konfiantza hgehiago emateko eta kolektiboaren nozioa gogan atxik dezaten nahiz eta terranoan, bakarrik izan komertsio batean adb lehen hitza euskaraz emateko!

Azkenan 806 parte hartzaile (258 AB / 548 BL) (ikus zenbaki adierazgarriak...

Txapa soinean, irria ezpainetan, euskara ahoan!!!

Kausitze handi bat... Denbora labur batean, pentsatu baino jende gehiago bildu da.

Herritarren dinamikak – herritarrentzat eginga/ herritarren artean komunikatuz... osagai onak dinamika emankor eta ausarta baten aktibatzeke.

